6. artikulua.- Araudi honen 1. artikuluan agertzen den lehiaketa bakoitzean, ETxF-ren urteko egutegian inskribatutako probak independenteki puntuatuko dira, proba gisa jasota badaude txapelketa hauetan: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, Euskal Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa.

7. artikulua.- Klub antolatzailleek beren Lurralde Federazioen bitartez daten proposamenak egingo dizkiote ETxF-ri, Ohiko Batzarra egin aurretik. ETxF-k prestatuko du behin betiko egutegia.

8. artikulua.- Justifikatu gabeko arrazoiengatik proba eteten bada, klub antolatzialeak data eta kategoria horretarako lehentasuna galduko du, hurrengo urteetan.

PARTE HARTZEKO ETA IZENA EMATEKO BALDINTZAK

9. artikulua.- Errepide-txapelketako probetan, 1. artikuluan adierazitako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulari guztiekin parte har dezakete, baita Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunera kidetutako Federazioetako lizentziadunek ere, Araudi honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, betiere.

Bi talde atzerritarrek parte hartu dezakete, txirrindulari-kopuru berarekin.

Parte hartzaleen adinak mugatzen dira lasterketa burutzen den urtea eta lasterkariaren jaiotze urtearen arteko aldearen bidez.



10. artikulua.- Talde bakoitzean, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioak igorritako lizentziarik ez duten Europako Erkidegoaz kanpoko bi (2) korrikalarirekin parte har dezake, gehienez ere. Puntu hori ezin zaie atzerriko ekipoei aplikatu, ezta kadete eta junior kategorietako mutil-taldeei, eta ezta ere orokorrean neska-taldeei.

11. artikulua.- ETxF-ren inskripzio-orrieta jasota ez dauden txirrindulariek lizentzia aurkeztu beharko dute, proban izena eman ahal izateko.

12. artikulua.- Federazio Autonomiko Homologatuek edo Espainiako Txirrindulari Errege Federazioek igorritako lizentziarik ez dutenek egiaztatu beharko dute Spainian egingo diren txapelketen behar bezala aseguratuta daudela, istripuen eta erantzukizun zibilaren kontra. Horretarako, agiri ofiziala aurkeztu beharko dute ETxF-n, euskaraz, gaztelaniaz frantsesez edo ingelesez idatzita.

ETxF-k egoera erregularizatuta duten txirrindularien zerrenda eguneratua emango dio proba bakoitzeko epaimahai teknikoari, eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ezean, txirrindulariek ezingo dute proban parte hartu.

13. artikulua.- Parte hartzerakoan, talde eta txirrindulari guztiak ziurtatu beharko dute Araudi hau errespetatu eta zorroztasunez beteko dutela.

KIROL ZUZENDARIAK

14. artikulua.- Talde bakoitzak bere kirol zuzendaria izango du, eta lizentzia indarrean duela egiaztatu beharko du probaren Epaimahai Teknikoaren aurrean, taldea inskribatzerakoan. Kirol-zuzendaria taldeko kidea eta horren arduraduna da. Epaimahai Teknikoari ematen zaion inskripzioan haren izena agertu beharko da.

Kirol-zuzendari titularra ezin bada proba jakin batera bertaratu, haren ordez ekipo bereko kide batek jardun dezake. Horretarako, taldekidea (mekanikaria, masajista, etab.) dela egiaztatzen duen lizentzia erakutsi beharko du nahitaez. Ordezkoek titularrek dituzten eskubide eta betebehar berdinak izango dituzte.

BILERAK ETA TALDEEN AUTOEN ORDENA

15. artikulua.- Bestelakorik xedatu ezean, Epaimahai Teknikoak edo Federazio antolatzaileak edo ordezkariak hala eskatuta, autoen ordena zozketatzeko bilera egingo da, proba bakoitza hasi baino hamabost (15) minutu lehenago, eta taldeko arduradun guztiak bertaratu beharko dira nahitaez.

Laguntza-autoak lasterketan zirkula dezan, taldeak gutxienez hiru (3) txirrindularirekin parte hartu beharko du. Hori ez da aplikaziozkoa izango Gaztetxoak Txapelketan.

Euskadiko txapelketa guztieta, ETxF-k auto-zenbaikiak banatuko ditu.

LAGUNTZAK - AUTO NEUTROAK

16. artikulua.- Txirrindulariek beren taldeko autoko edo auto neutro bateko teknikariaren laguntza jaso dezakete, edo, kasuan kasun, lasterketaren amaierako autoarena (erratz-autoak).

Gainera, txirrindulariek beste talde baten autoko teknikariaren laguntza jaso dezake, materialari zein mekanikari dagokienez.

17. artikulua.- Auto neutroak behar bezala identifikatu beharko dira, eta auto bakoitzean, gidariaz aparte, mekanikaria egongo da. Probako Epaimahai Teknikoak esleitutako tokian jarriko dira, uneoro, eta parte-hartzailee gurpilak aldatzen zaizkiela bermatuko dute.

ETxF-ren auto neutroa Nafarroako Foru Erkidegoko proba batera bertaratuko ez balitz, Nafarroako Txirrindularitza Federazioak egiaztatutako autoak ordezkatuko luke, dagozkion ondorio guztiararako. Horren arduradunak bere gain hartuko ditu ETxF-ko ordezkariari emandako erantzukizunak.

Erratz-autoak aurreko eta atzeko bi (2) gurpil-joko izango ditu txirrindularientzat, antolakuntzak emanak.



Txirrindulari batek auto neutroaren edo erratz-autoaren laguntza jaso badu, txirrindulariak edo haren taldeak emandako materiala itzuli beharko du.

LIDERRAREN MAILLOTA

18. artikulua.- Sailkapen orokor indibidualeko liderrak maillota eraman behar du txapelketaren hurrengo proban.

ZENBAKIAK

19. artikulua.- ETxF-k emango ditu zenbakiak. Txirrindulariek ETxF-k esleitutako zenbakia erabiliko dute, eta zenbakia berdina izango da beti txapelketen probetan zein Euskadiko errepipe-txapelketetan.

Zenbaki bakarra ematen bada, ezkerraldean jarri beharko da, kontrako xedatu ezean.

Kadete eta Junior kategorietako txirrindulariek esleitutako zenbakia eramatzen ez badute, zigorra jasoko dute. Errepikatuko balitz, txirrindulariak ez du izango proba horretan ateratzeko baimenik.

KONTROL AMAIERA

20. artikulua.- Helmugara garailea baino hamabost (15) minuto beranduago iristen diren txirrindulariak kontrolez kanpo geratuko dira.

Parte-hartzale batek ezin badu azken txirrindularientzat aurreikusitako denbora bete edo probaren kontrol-denbora gainditzen badu, txapelketa-gunearen amaiera mugatzen duen ikurrin berdedun ibilgailuak pasatuko du, eta proba utzi beharko du, autoen trafikoa eta probaren bera ez oztopatzeko. Jarraitzekotan, zenbakia kentzea eta trafiko-arauak eta seinaleak betetzea nahitaezkoa da, eta bide-erabiltzaile soila dela iritziko zaio. (Trafikoari buruzko 19/2001 Legearen 6.2. artikulua)

INFORMAZIOA LASTERKETAN ZEHAR

21. artikulua.- Epaimahai Teknikoko lehendakariaren ibilgailuan, itzuliaren irratia jarriko da (151.700 MHz.), probari buruzko informazioa emateko eta Epaimahai Teknikoak dagozkion argibidean jakinarazi ditzan.

Antolatzaileak izendatuko du itzuliko irratiaaren esataria.

Epaimahai Teknikoak inskripzio ofiziala banatuko die kirol-zuzendariei, irteera eman aurretik. Xedapen hori betetzeko, kirol-zuzendariek nahitaez proba hasi baino hogeita hamar (30) minuto lehenago inskripzioa burututa eduki behar dute.

PROTOKOLOA

22. artikulua.- Txirrindulari guztiekin postuekin, sailkapenekin, ekintzakin eta maillotak jartzeko ekitaldiekin lotutako protoko-lo-zeremonian parte hartu behar dute nahitaez.

Txirrindulariek lasterketa-arropekin azaldu behar dute protokolo-zeremoniara.

LASTERKETA AKTAK

23. artikulua.- Proba bakoitzeko Epaimahai Teknikoak Lasterketaren Akta Ofiziala eta inskripzio-orri ofiziala eta sarien eta dieten xehetasunak banatu behar dizkie ETxF-ri eta Lurralde Federazioei, proba burutu eta berrogeita zortzi (48) orduko epean, gehienez ere.

DOPINAREN AURKAKO KONTROLA

24. artikulua.- Edozein probatan egin daiteke, aldez aurretik ohartarazi gabe. Beraz, ANTOLATZAILE GUZTIEK Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasanaren Araudia betetzen duen lokal bat eduki beharko dute, dopinaren aurkako kontrola egiteko.



ZIGORRAK

25. artikulua.- Zigorak teknikoak edo diziulinazkoak izan daitezke. Probaren Epaimahai Teknikoak jarriko ditu zigor teknikoak, eta diziiplina-organo eskudunak, berriz, diziulinazkoak.

Antolatzaileak sarietatik kenduko ditu Epaimahai Teknikoak ezarritako zigorak, eta ETxF-ra transferitu.

Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko Txirrindularitza Araudian ezarritako zigor-taula aplikatuko da, ondoko koadroaren araberako ehuneko murriztailea aplikatuz eta suitzar frankoak urteroko urtarilaren leean duen balioa aintzat hartuz.

ELITE-23 URTEZ AZPIKOAK	JUNIOR/KADETE	EMAKUMEAK
% 25	% 35	% 50

PROBA BAKOITZEKO TALDE SAILKAPENAK

26. artikulua.- Talde bakoitzetik sailkatu diren lehenengo hiru txirrindulariek egindako denboren batura izango da, eta sailkapen onena lortuko du denbora gutxienean egin duen taldeak. Berdinketarik balego, sailkatu diren lehenengo hiru txirrindularien postuak batuta puntu gutxien lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, Denboren Sailkapen Indibidualean posturik onena lortu duen txirrindulariaren taldea sailkapenean aurretik egongo da.

MENDIKO SAILKAPEN INDIBIDUALA

27. artikulua.- Txirrindulari bakoitzak gailur puntuagarriean lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Gailurren kategoria		
	1.a	2.a	3.a
1.	10	6	3
2.	8	4	2
3.	6	2	1
4.	4	1	
5.	2		
6.	1		

TARTEKO HELMUGEN SAILKAPEN INDIBIDUALA

28. artikulua.- Txirrindulari bakoitzak ezarritako helmugetan lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Puntuak
1.	3
2.	2
3.	1

ESPRINT BEREZIETAN, sailkapen-sistema bera erabiliko da.



SAILKAPEN OROKORRAK

29. artikulua

A. Kontrakoa xedatu ezean, txapelketetako sailkapen orokorrak hauei dagokie esklusiboki:

1. Sailkapen orokor indibiduala

1. artikuluan jasotako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulariak eta Federazio horietara atxikita dauden taldeetako kideak.

2. Taldekako sailkapen orokorra

Lehiaketa-oinarrien 1. artikuluan jasotako Federazioetara atxikitako taldeak.

B. Sailkapen orokor indibiduala

Txirrindulari bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.

Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarriean lehenengo postu gehien lortu dituen txirrindularia sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, azkeneko proban sailkapen onena zeinek lortu duen aintzat hartuko da.

EX-AEQUO kasuetan, txirrindulariak EX-AEQUO hasten deneko postuari dagozkion puntuak jasoko ditu.

C. Taldekako sailkapen orokorra

Talde bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.

Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarriean lehenengo postu gehien lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da, eta berdinketak jarraitzen badu, aintzat hartuko zein taldek egin dituen bigarren postu gehien, eta hirugarrenak, gero. Berdinketak jarraitzen badu, sailkapen orokor indibidualean posturik onena duen taldeko txirrindularia aintzat hartuko da.



EMAKUMEEN EUSKALDUN TXAPELKETA

PARTE HARTZEA

38. artikulua.- Emakumeen Euskaldun Txapelketak bi kategoria ditu:

- **Elite:** 19 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak
- **Junior:** 17 edo 18 urteko txirrindulariak
- **Kadetea:** 15 edo 16 urteko txirrindulariak

IBILBIDEAK ETA PROFILAK

39. artikulua.- Probek distantzia hauek izango dituzte gehienez ere, kategoriaren arabera:

- **Elite:** 140 km linean, eta 35 km erlojupeko indibidualean.
- **Junior:** 80 km errepidean, eta 15 km erlojupeko indibidualean.
- **Kadetea:** 60 km errepidean, eta 12 km erlojupeko indibidualean.

Erreferentzia gisa, ibilbide lauak izango dira gehienbat, eta igoerek ezingo dute % 8 malda gainditu.

GARAPENAK

40. artikulua.- Hauek dira kategoria bakoitzerako onartutako gehienezko garapenak:

- **Elite:** askea
- **Junior:** 7,93 (52x14)
- **Kadetea:** 6,94 (52x16)

IRTEERA ORDENA

40. artikulua.- Errepideko proben kasuan, aholkatzen da kategorien arabera irtetea, 2 minutuko tartea utzita eta ordena honetan: lehenik, elite kategoriako txirrindulariak; gero, junior mailakoak; eta, azkenik, kadete kategoriakoak.

Edonola ere, kadete kategoriako txirrindulariek irteera beren aldetik hartu behar dute, elite eta/edo junior mailakoen ostean.

AUTOEN ORDENA

34. artikulua.- Euskadiko eta Nafarroako taldeen autoak ETxF-k ezarritako txandakako ordenari jarraituko diote. Gainontzeko taldeetako automobilak zozketa bidez ordenatuko dira.

SAILKAPENAK

43. artikulua.- Proba bakoitzean, kategoriek sailkapen zehatz bakarra izango dute.

KALIFIKAZIO OROKOR INDIBIDUALAK

44. artikulua.- 38. artikuluan aipatutako kategoria bakoitzerako sailkapen orokor indibidual bat ezarriko da.

Kategorietako puntuak honela banatuko dira:

Postua	Puntuak	Postua	Puntuak
1º	10 puntu	6º	5 puntu
2º	9 puntu	7º	4 puntu
3º	8 puntu	8º	3 puntu
4º	7 puntu	9º	2 puntu
5º	6 puntu	10º	Puntu 1



Gainera, proba Araudi honen 20. artikuluan xedatutako denboran amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiak puntu bat jasoko dute.

45. artikulua.- Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, protokolo-zeremonian Emakumeen Euskaldun Txapelketaren liderra dela adierazten duen maillota emango diote kategoria bakoitzeko sailkapen orokor indibidualean lehenengo postua duen txirrindulariari.

Era berean, maillota emango diote sailkapen orokor indibidualean 19 eta 22 urte bitartekoaren artean lehen postua lortu duenari, liderrak 23 urte edo gehiago baldin baditu.

Lasterketan maillota jantzita ez daraman liderrak 15 puntuko penalizazioa izango du sailkapen orokor indibidualean.

Txapelketa bakoitzeko Amaierako Sailkapen Orokorrean sartzeko, txirrindulariak txapelketa horretarako proba puntuagarrien % 80ean parte hartu beharko du gutxienez.

SARIAK ETA DIETAK

46. artikulua.- Proba bakoitzean sari eta dieta hauek banatuko dira:

POSTUA	KADETE	JUNIOR	ELITE	ELITE/JUNIOR*
1.	--	45 €	160 €	160 €
2.	--	35 €	125 €	125 €
3.	--	25 €	105 €	105 €
4.	--	20 €	85 €	85 €
5.	--	15 €	70 €	70 €
6.	--	--	50 €	50 €
7.	--	--	40 €	40 €
8.	--	--	35 €	35 €
9.	--	--	30 €	30 €
10.	--	--	30 €	30 €
11.	--	--	--	25 €
12.	--	--	--	25 €
13.	--	--	--	25 €
14.	--	--	--	25 €
15.	--	--	--	25 €
PHP –Dietak**	5 €	10 €	--	10 € (Junior)***

(*) Elite eta Junior baterako partaidetza

(**) Parte hartzeko pizgarriak - Dietak

(***) 10 €-ko dietak Juniorrentzako bakarrik. Eliteek dietarik ez.

Parte hartzeko pizgarriak - Dietak:

Kadete mailan, Denboraren araberako Sailkapenean sailkaturiko txirrindulari bakoitzeko, bere taldeak 5 € jasoko ditu.

Junior mailan, taldeak 10 € jasoko ditu 6. plazatik aurrera sailkatuta dauden txirrindulari bakoitzeko Juniorrentzako probetan soilik, eta 16. plazatik aurrera Elite eta Junior baterako probetan aldiz.

Parte hartzeko pizgarriak probaren antolatzaleak ekarriko ditu.



AZKEN SARIAK

47. artikulua.- Txapelketa Amaierako Sariak jasotzeko, nahitaezkoa da txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 80an parte hartu izana gutxinez.

POSTUA	19-22 URTEKOAK	23 URTE EDO GEHIAGOKOAK
1.	750 €	750 €
2.	500 €	500 €
3.	300 €	300 €

ARTIKULU GEHIGARRIAK

A Artikulu Gehigarria. Junior eta Elite kategorien baterako partaidetzarena

Hautazkoa da, zeren Antolatziale bakoitzak askatasunez erabaki ohi du Junior eta Elite korrikalariak baterako proban parte hartuko duten edo ez. Kategoria biren baterako partaidetzaren hipotesi horretan, Antolatzaila espresuki horren aipamena egin beharko du bere probaren dokumentazioan, horrez gainera ondorengo aginduak kontuan hartu behar izanik:

- Kategoria biek, hau da, Junior eta Elite, une orotan Irteera, Ibilbidea eta Helmuga partekatuko dituzte.
- Baterako probaren gehieneko distantzia 80 Km-koa izango da.
- Juniorrentzako garapena: askea.
- Denboraren araberako Banakako Sailkapena eta Taldeko Sailkapena, probarena, absolutuak izango dira. Hau da, sailkapen bakarra zeinetan korrikalariak elkarrekin azalduko diren, dagozkien lizentziatan azaltzen den euren kategoria alde batera utzita.
- Sarien Baremo absolutua. Hau da, Sarien Baremo bakarra, kategoriarik bereizi gabe. Hala ere, 16. Plazatik aurrera sailkatuta dauden Junior korrikalari guztiekin 10 €-ko dieta eskuratuko dute.
- Puntuen Baremoa, Emakumezkoen Torneo Euskaldunaren Banakako Sailkapen Nagusirako. Independentea kategoria bakoitzerako Errepideko Proben Araudiko 44. Artikuluaren arabera – EtxF-ko Emakumezkoen Torneo Euskaldunean.
- Sariak. Minimotzat hartzen dira, Junior lehenengo postua, Elite lehenengo postua, eta 19tik 22 urtera bitarteko lehenengo korrikalaria, garailea 23 urteko edo gehiagoko korrikalaria izango zatekeen kasuan, Denboren araberako Banakako Sailkapen absolutuaren proban.



EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOKO ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIAREN I. ERANSKINA (25. artikulua)

NAZIOARTEKO TXIRRINDULARITZA BATASUNEKO ARAUDIAREN ZIGORREN ETA PENALIZAZIOEN KOADROA

LASTERKETAKO GERTAKARIAK

1. Sinadurarik gabeko irteera
2. Irteerara arauz kanpoko bizikleta eramatea
 - 2.1 Lasterketan arauz kanpoko bizikleta erabiltzea
3. Jantziak:
 - 3.1 Funtsezkoak ez diren elementuak erabiltzea (1.3.033)
 - 3.2 Txirrindulariak derrigorrezko kaskoa ez eramatea
 - 3.3 Txirrindulariak kaskoa kentzea proban zehar
4. Dortsala, bizkarreko zenbakia edo koadroko plaka aldatuta edo arauz jarri gabe eramatea
5. Dortsala ikusezina edo ezagutezina izatea
7. Jantziak arauz kanpo jasotzea edo ematea
8. Beste talde bateko txirrindulari batia arauz kanpoko laguntza materiala ematea
9. Hegaldian ordezkapenak:
 - 9.1 Talde bereko txirrindularien artean
 - 9.1.2 Azkeneko kilometroan
- 9.2 Talde berekoak ez diren txirrindularien artean
10. Esprinta:
 - 10.1 Hautatu ez den beste bide batera desbideratzea, aurkariak arriskuan jarri
 - 10.2 Arauz kanpoko esprinta
- 10.3. Maillotari lotuta
 - 10.3.2 Azkeneko kilometroan

ZIGORRAK ETA PENALIZAZIOAK

- | | |
|--|--|
| 1. Sinadurarik gabeko irteera | Kanporatzea edo deskalifikatza eta 30 CHF |
| 2. Irteerara arauz kanpoko bizikleta eramatea <ol style="list-style-type: none">2.1 Lasterketan arauz kanpoko bizikleta erabiltzea | Irteteko baimenik ez izatea
Kanporatzea edo deskalifikatza |
| 3. Jantziak: <ol style="list-style-type: none">3.1 Funtsezkoak ez diren elementuak erabiltzea (1.3.033)3.2 Txirrindulariak derrigorrezko kaskoa ez eramatea3.3 Txirrindulariak kaskoa kentzea proban zehar | Irteteko baimenik ez izatea
Irteteko baimenik ez izatea
Kanporatzea eta 50 CHF |
| 4. Dortsala, bizkarreko zenbakia edo koadroko plaka aldatuta edo arauz jarri gabe eramatea | 30 CHF |
| 5. Dortsala ikusezina edo ezagutezina izatea | 30 CHF |
| 7. Jantziak arauz kanpo jasotzea edo ematea | Txirrindularia: 30 CHF
Kirol zuzendaria: 100 CHF |
| 8. Beste talde bateko txirrindulari batia arauz kanpoko laguntza materiala ematea | Inplikatutako txirrindulari bakoitzak: kanporatzea eta 100 CHF |
| 9. Hegaldian ordezkapenak: <ol style="list-style-type: none">9.1 Talde bereko txirrindularien artean9.1.2 Azkeneko kilometroan | Inplikatutako txirrindulari bakoitzak: 100 CHF
Inplikatutako txirrindulari bakoitzak: 100 CHF eta pelotoiaren azkeneko postuan sailkatzea
Inplikatutako txirrindulari bakoitzak: 100 CHF eta kanporatzea eta |
| 9.2 Talde berekoak ez diren txirrindularien artean | |
| 10. Esprinta: <ol style="list-style-type: none">10.1 Hautatu ez den beste bide batera desbideratzea, aurkariak arriskuan jarri10.2 Arauz kanpoko esprinta | |
| 10.3. Maillotari lotuta <ol style="list-style-type: none">10.3.2 Azkeneko kilometroan | Deskalifikatza eta 100 CHF
Pelotoiaren azkeneko postuan sailkatzea eta 100 CHF
50 CHF
Deskalifikatza eta 100 CHF |



11. Bultzada:
- 11.1 Ibilgailuan abiada hartzea 30 CHF arau-hauste bakoitzeko
- 11.2 Talde bereko txirrindularien artean Inplikatutako txirrindulari bakoitza: 30 CHF arau-hauste bakoitzeko
- 11.3 Talde berekoak ez diren txirrindularien artean Bultzatzen duen txirrindularia: kanporatzea eta 50 CHF
- 11.4 Ikusle baten eskutik jasotza Ohartaraztea
12. Txirrindulari bati edo ekipoko ibilgailu bati nahita oztopo egitea Kanporatzea eta 50 CHF
13. Zirkuituaren helmugan baimenik gabeko mutuaren laguntza jasotzea Inplikatutako txirrindulari bakoitza: kanporatzea eta 100 CHF
14. Ibilbidean nahita desbideratza, ibilbide osoa bizikleta gainean egin gabe sailkatzen saiatzea, lasterketara bueltatzea autora edo moto gainera igo eta gero. Kanporatzea eta 100 CHF
- 14 bis. Ibilbidearen kanpoko oinezkoen bide, espaloi zein bidegorrietzat baliatu edota ibiltzea Kanporatzea eta/edo 100 CHF
15. Nahi gabe ibilbidetik desbideratza, eta abantaila izatea Erlojupekoa: 20"-ko penalizazioa Linean: kanporatzea
16. Itxita dagoen trenbide-pasagunea gurutzatzea Kanporatzea
17. Iruzur egitea, iruzur egiten saiatzea, talde ezberdinako txirrindularien arteko akordioa Inplikatutako txirrindulari bakoitza: kanporatzea eta 100 CHF
18. Txirrindularia bere taldeko ibilgailu bati eustea Txirrindularia: kanporatzea eta 100 CHF
- 18.1 Txirrindularia ibilgailu motordun bati Kirol zuzendaria: kanporatzea eta 100 CHF
- 18.2 Txirrindularia ibilgailu motordun bati Txirrindularia: kanporatzea eta 100 CHF eustea
- Ibilgailua: kanporatzea eta 100 CHF, ibilgailuaren arduradunak lizentzia badu
19. Ibilgailu motordunaren atzetik babestea edo haren arrastoa jarraitza: Ohartaraztea
- 19.1 Bat-batekoa Ohartarazpena errespetatzen ez badu:
- 19.2 Denbora luzez Txirrindularia: kanporatzea eta 30 CHF
20. Konponketa mekanikoa edo arauz kanpoko mediku-laguntzak Txirrindularia: kanporatzea eta 50 CHF
- 20.1 Azkeneko 20 kilometrotan Kirol zuzendaria:
21. Gorputza autotik ateratza 1. arau-haustea: 200 CHF
- edo materiala prestatuta izatea, autotik kanpo 2. arau-haustea: 500 CHF



23. Baimenik gabeko zuzkidura:
2.3.1 Hasierako 50 kilometrotan
2.3.2 Azkeneko 20 kilometrotan
24. Arauz kanpoko zuzkidura:
25. Ibilgailuen zirkulazio-arauak haustea,
lasterketan
28. Lasterketaren edo antolakuntzaren jarraibideak
ez errespetatzea
- 28.1 Taldeko ibilgailu baten jarraibideak
ez errespetatzea
29. Irainak, mehatxuak, arauz kanpoko portaera
30. Erasoa:
- 30.1 Txirrindularien artean
- 30.2 Beste pertsona bat
31. Elikagaiak, edariak eta beste edozein
merkantzia lapurtza proban zehar
32. Beirazko edalontzia eramatea
33. Objektu bat botatzea irregularki,
objektu bat botatzea publikoari
34. Beirazko objektu bat botatzea
35. Lasterketa-norabidean helmugatik berriro
igarotzea, dortsala eramanaz
36. Protokolo-zeremonietan ez parte hartzea
37. Laguntha mekanikoa, zuzkidura eta kirol
zuzendariaren eta/edo txirrindularitzaren arauz
kanpoko portaera, txirrindularitzaren irudiari
kalte egiten diona (adibidez: erantsitako bidoiak,
laguntha mekanikoa martxan, etab.)
- Txirrindularia: 50 CHF
Txirrindularia: 150 CHF
Lizentzia duen beste edonor: 150 CHF
- Txirrindulariak 20 CHF arau-hauste bakoitzeko
Lizentzia duen beste batek 50 CHF arau-hauste
bakoitzeko
- Gidaria: 100 CHF
- Txirrindularia: 20tik 100 CHF
Lizentzia duen beste edonor: 50tik 200 CHF
- Lasterketaren azkeneko postura joatea
- Lizentzia duen beste edonor: 50tik 200 CHF
- 100 CHF eta 1'-ko penalizazioa. Bereziki larriak diren
kasuetan, berriz, kanporatzea
Txirrindularia: kanporatzea eta 100 CHF
Lizentzia duen beste edonor: 1000 CHF
- Lizentzia duen beste edonor: 300 CHF
- Lizentzia duen beste edonor: 30 CHF
- Lizentzia duen edonor: 30 CHF
- Lizentzia duen edonor: kanporatzea eta 50 CHF
- Txirrindularia: ohartaraztea
- Txirrindularia: 100 CHF eta saririk gabe geratzea
1. arau-haustea:
- Kirol zuzendaria: 20tik 100ra CHF
- Txirrindularia: 20tik 100 CHF
2. arau-haustea:
- Kirol zuzendaria: 100 CHF eta ibilgailuen
azkeneko postura atzeratzea
- Txirrindularia: 100 CHF, 10"-ko penalizazioa, eta
5 puntuoko penalizazioa txapelketako Banako
Sailkapen Orokorean



3. arau-haustea:

- Kirol zuzendaria: kanporatzea eta 200 CHF
- Txirrindularia: 200 CHF, 10"-ko penalizazioa, eta 5 puntuoko penalizazioa txapelketako Banako Sailkapen Orokorean

38. Liderraren maillota ez eramatea

Ikus 32, 45, 53 edo 60 artikuluak

39. Kanporatua ez izateko manifestazioa edo jarrera antolatua

Txirrindularia: 50tik 200ra CHF

40. Erlojupekoak:

40.1 Txirrindularientzako distantziak eta tarteak ez errespetatzea

Txirrindularia: 30 CHF

40.2 Aurkariaren arrastoa hartzea

30 CHF eta denbora-penalizazioa

40.3 Atzetik datorren ibilgailuak 10 metroko distantzia ez errespetatzea

Kirol zuzendaria: 100 CHF
Txirrindularia: 20"-ko penalizazioa

40.4 Ibilbideko eta berotze-zonako xedapenak ez betetzea

Kirol zuzendaria: 100 CHF
Txirrindularia: 30 CHF
Antolatzalea: 150 CHF